



Komikizaleak berehala hurbildu ziren azokara. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

## Komikiaren erdigune izango da Getxo asteburu osoan

GARA | GETXO

Getxoko Komiki Azokaren 14. edizioak atzo ireki zituen atea. Gaur eta bihar Areetako Gelto-  
kia plazan jarritako karpas ger-  
turatzen diren bisitariak 60 sal-  
menta postu aurkituko dituzte  
bertan. Komiki dendak, liburu  
denda berezituak, aldizkariak,  
fanzineak, argitaletxeak eta ko-  
mikiaren sektoreko hainbat ki-  
de bilduko dira Getxon eta, ho-  
rrez gainera, egitarau zabala eta  
hainbat bisitari izango dira. «Bi-

netaren munduarekiko zaleta-  
suna dutenak nahitaz biltzeko  
puntua izatera iritsiko da Ge-  
txo», azaldu dute antolatzaileek.

Besteren artean, Fantagrap-  
hics argitaletxeko zuzendari  
Eric Reynolds eta "Futurama" te-  
lesailaren estetikaren sortzaile  
Dave Cooper izango dira azokan,  
baita "La perdita" lanaren egile  
eta feminismoa komikira gertu-  
ratzen ahalegina egin duen Jes-  
sica Abel eta mainstream komi-  
kien gidoiari Peter Milligan ere.

## Ipar Euskal Herriko artistak Seaskaren alde arituko dira gaur, Victoria Eugenia

GARA | DONOSTIA

Ikastolen eta euskal artisten ar-  
teko harremana aspaldiko kon-  
tua da. Duela 46 urte lehen ikas-  
tola sortu zenetik, euskal  
artistek sostengua adierazi izan  
diete alde edo moldez. Hasiera-  
tik, ikastolak diruz laguntzeko,  
herri guztietan kantaldiak anto-  
latu ziren: antzokietan, elizetan,  
zinema aretoetan, merkatue-  
tan... euskal kantagintzaren aur-  
pegi ezagunenak aritzen ziren  
zuzenean publikoaren aurrean  
euskararen geroa sustatzen.

Gaur egun ere bizirik irauten  
du harreman sendo horrek: as-  
teburuetan, Ipar Euskal Herriko  
hainbat bazterretan, ikastoleta-  
ko guraso, lagun eta langileek  
hitzorduak antolatzen dituzte  
-kontzertuak, mintzaldiak,  
kantaldiak, antzerkiak, bertso  
saioak...- euskal kulturaren he-  
datzeko eta beren ikastolen fi-  
nantzazamendurako.

Gaurkoan, Donostiako Victo-  
ria Eugenia antzokian, Seaska

Ipar Euskal Herriko ikastolen  
Federazioak kantaldi berezia anto-  
latu du. Helburu bikoitza du  
hitzorduak. Batetik, kantaldiak  
Ipar Euskal Herriko artista pun-  
takoak ekarriko ditu Gipuzkoa-  
ko hiriburura. Profesionalki ibil-  
bide luzea duten sortzaileak  
izango dira oholta  
ganean -Erramun Martikorena  
edo Mixel Ducau, esaterako-,  
gaur egun punta-puntan daude-  
nak -Aire Ahizpak, Amaia  
Riouspeyrous, Kattalin Indabu-  
ru...- eta baita sortzaile berriak  
ere -Begiz Begi, Bilaka...-. Orot-  
ara 30 artista arituko dira Se-  
ask@ntuz izenarekin antolatu  
duten emanaldian. Bigarren hel-  
burua Ipar Euskal Herriko ikas-  
toletako behar ekonomiko han-  
diei aurre egiteko diru iturri  
izatea da.

Emanaldia 20.00etan abiatu-  
ko da, eta sarrerak salgai daude  
jada, bai Interneten bidez, bai  
Victoria Eugeniako leihatilan.  
Hiru salneurri izango dituzte:  
15, 12 eta 10 euro.

## ANTZERKIA

# Maitasunaren legea

Jaime VALVERDE

**E**txekoak"-ek kanpokotasuna du  
mintzagai, eta horretaz jardute-  
ko etxearen barnealdea, fisiko-  
ki nahiz sinbolikoki, hautatu  
dute eszenariotzat. Esango nu-  
ke kutsu retro bat dagoela este-  
tikan, espazio itxia sublimatu  
egiten dela, euskal nortasuna-  
ren itxikeriari erreferentzia egiteko, nonbait.

Maddi gaztea etxera bueltatu da Afrikatik  
Mamadou izeneko beltz batekin maitemindu-  
ta. Mundu aberatsetik ez datorren bikotekidea  
Euskal Herrira ekartzeko topatuko dituen zail-  
tasun legalak izango dira heroiak gainditu be-  
harreko erronka. Lipusen obren  
tan ohikoa den moduan,  
poloen arteko talkak ematen  
dio egitura antzezlanari:  
etxea/atzerria, legea/askatasu-  
na, zuhurtzia/txoriburutasuna,  
eta abar. Zuzenbidearen horma  
gaindiezinenaren kontra egingo  
du Maddiren maitasun garbiak,  
Kafka idazlea eta Antigona obra  
gogoraraziz.

### ETXETKOAK

**Zuzendaria:** Ander Lipus.

**Testua:** Jon Gerediaga.

**Aktoreak:** Kristiane Etxaluz,  
Javier Barandiaran, Maika  
Etxekopar eta Ander Lipus.  
Arriaga Antzokia, Bilbo,  
2015/11/18.

Burokraziaren estructures gupidagabea irudi-  
katzen da absurdora eramanez, Lipusek bere  
jokatze gaitasun itzela zenbait erregistro des-  
berdinetan erakusten duelarik. Bere parean, es-  
zenaren animalia den Barandiaranek gozatu  
eta gozarazten du egokitu zaion pertsonaia  
ederrarekin; alegia, tuntun jakintsua, erregea  
biluzik dagoela salatzen duena. Halaber, plazer  
izugarria da gure teatroaren historia bizia den  
Kristiane Etxaluz taula ganean ikustea; hala  
nola Maika Etxekoparren pasioa bere pertso-  
naia jokatzeke.

Eta horien guztien ahotsetan, Gerediaga poe-  
taren hitz zoragarriak publikoa oilo azalarekin  
uzteko. Esan beharra dago oso gutxitan ikusten  
dela antzerkian Lipus/Gerediaga bikote artisti-  
koak lortzen duen oreka alor bi-  
sualaren eta testualaren artean.

Lipusek darabilen ekintzaren  
poetika Gerediagaren hitzeko  
poetikan bermatzen da eta al-  
drebes, bata bestearen ondoan  
biderkatuz baina inoiz ez behar  
baino gehiago nabarmenduz.  
Hori dela eta, lan aparta dugu  
"Etxekoak", umoretsu, engaiatu  
eta samurtasun handikoa.



«Etxekoak» antzezlaneko aktoreak. HUTS TEATROA

## Taller y charla de la artista y directora de cine Petra Bauer en Tabakalera

GARA | DONOSTIA

La artista y directora de cine  
sueca Petra Bauer, con una  
práctica influida por teorías y  
prácticas feministas, aportará  
las claves para mostrar el po-  
tencial del arte y del cine, para

transformar las estructuras  
del poder y la vida cotidiana.  
Del 24 al 26 de noviembre,  
dentro de la programación de  
LaPublika, impartirá un taller  
y una charla en  
Tabakalera -gratuito con ins-  
cripción previa-. LaPublika es

un laboratorio de investiga-  
ción artística sobre esfera pú-  
blica, dirigido por la produc-  
tora de arte bilbaina  
Consonni, coproducido por  
Tabakalera y Donostia 2016 y  
con la colaboración de la Fa-  
cultad de Bellas Artes.